



Legealdiko lehenengo aurrekontua dugu hau. Guztiok dakigu aurrekontua egiteak zer-nolako zailtasuna duen.

Lehenengo, aurrekontuaren oreka lortu behar dugu. Egia esan, eta aitortu beharra dago, udalerrri honetako aurrekontu-proiektu bakoitzean sartzen diren apustu politiko zehatzak salbu, ia ezinezkoa da udal gobernu ezberdinek aurrekontu politika ezberdinak erabiltzea.

Agian hau ez da aurrekontu egokiena izango, baina benetakoa eta arduratsua da. Aurrekontu hau Zerga Ordenantzekin batera landu dugu, eta horiek izoztu egin ditugu, agerian jarri nahi izan dugulako gure udalerrriaren baliabideak ez direla pasaitarren "poltsikoetatik" bakarrik atera behar.

Baliabide ekonomiko urriak ditugu, eta horrez gain, udalerrriaren sakabanaketak asko garestitzen ditu gure gastuak, eta egiturazko arazo larriak sortzen ditu. Azkarrak izan behar dugu sarrera berriak bilatzen. Galdetuko didate: esaterako, zer sarrera? Erantzuna ez daukat argi, hala balitz, dagoeneko horretan ariko ginatke. Nolanahi ere, esan behar dut gure gobernuaren ekintzetako bat dela udalerrriarentzako konpentsazio-neurriak bilatu eta lortzea, beste erakundeei eskatzea Pasaiaren aldeko diskriminazio positiboa ezar dezaten, kontuan hartuta Gipuzkoako ekonomiarentzako "errentagarria" den azpiegitura dugula, eta gure udalerriko biztanleek ez dutela horren truke ezer jasotzen, trafikoak, deskargak eta zaratak baino ez. Diskriminazio-neurri positibo horien alde borrokatzea ez da "eskean ibiltzea", soilik JUSTIZIA da. Beste administrazio batzuetan gure eskaerak entzunarazteko gai izan behar dugu, eta gu guztion lana da hori.

Jakina, aurrekontua hobetu daiteke. Zalantzarik gabe. Bizitza honetan gauza guztiak hobetu daitezkeen bezala. Agiri hau erabakien ondorioa da, eta askotan, gehienetan, erabaki zailak dira; baina, gutxienez, antolaketako tresna gisa balioko

Nos encontramos ante el primer Presupuesto de la legislatura. No resultará para nadie ninguna novedad, mencionar el hecho de las enormes dificultades que supone su confección.

La primera tarea a la que nos enfrentamos es lograr su equilibrio. Lo cierto es, y hay que reconocerlo que, salvo apuestas políticas puntuales en cada proyecto de Presupuestos de este municipio, pretender que los diferentes Gobiernos Municipales apliquen políticas presupuestarias sustancialmente diferentes es, prácticamente, imposible.

Puede que éste no sea el Presupuesto ideal, pero si es real y responsable. Presupuesto que se ha fraguado junto con la aprobación de las Ordenanzas Fiscales y, con cuya congelación, quisimos poner de manifiesto que los recursos de nuestro municipio no solo deben descansar en los "bolsillos" de los pasaitarras.

Nos encontramos con recursos económicos escasos, con una dispersión del municipio que encarece sustancialmente nuestros gastos y con serios problemas estructurales. Deberemos ser audaces en la búsqueda de nuevos ingresos. Se me preguntará ¿como cuáles?. No tengo clara la respuesta ya que de tenerla, ya estaríamos en ello. De cualquier forma, si diré que en nuestra acción de Gobierno está la de buscar, conseguir, medidas compensatorias para el municipio, instar a otras instituciones al establecimiento de criterios de discriminación positiva para Pasaia, teniendo en cuenta que, contamos con una infraestructura que es "rentable" para la economía guipuzcoana y que, sin embargo, nuestros habitantes no obtienen nada a cambio, solo tráfico, descargas, ruidos... Articular y pelear estas medidas discriminatorias positivas, no es "mendigar", es sencillamente JUSTICIA. Debemos ser capaces, y es trabajo de tod@s nosotr@s, hacernos oír delante de otras Administraciones.

Por supuesto que es un Presupuesto susceptible de mejora. Sin duda. Como todo en esta vida. Este documento es fruto de decisiones y, por lo tanto, en muchas ocasiones, en la mayoría, difíciles, pero al menos, nos servirá como una herramienta



digu aurrekontuak; hitz ematen dut, aurrekontu hau baliabideen kudeaketarako tresna eraginkorra izango dela, are gehiago baliabide horiek urriak diren honetan.

Zoritxarrez, ezin dira nahi genituzkeen dirukopuruak jaso, baina baliabide horiekin lan egin behar izan dugu urte askotan, gehiegitan, gure udalerrian.

Ez da nire asmoa orain zehaztea zer sailetan izango diren igoerak eta zer zailetan izango diren murrizketak. Hala ere, esan beharra daukat gastuekin oso arduratsu jokatu dugula, eta partida batzuetan a priori kopuru txikiagoak jaso ditugula, 2014ko likidazioa egin eta Diruzaintzako gerakina zein den jakin arte. Behin gerakin hori lortu ondoren, partida horietan finantziario gehiago jaso ahal izango dugu, edo bat batean sor daitezkeen beste behar batzuei erantzun.

Sarreraren kapitulari dagokionez, aurrekontu-zuhurtziaren printzipioari jarraitu diogu. Jakin badakigu partida batzuek aurrekontu-zuzkidura handiagoa izan dezaketela, baina zuhurtasunez jokatu dugu a priori, eta ondoren, urtean zehar sarrera gehiago lortzen badugu, garaiz ibiliko gara partida horiek handitzeko eta behar berriei erantzuteko. Beraz, aurrekontu-zuhurtziaren printzipioari lehenetsuna eman diogu, "esneketariaren kontua" alde batera utzita.

Aurrekontu-zuhurtzia horren ondorioz, ez dugu krediturik eskatzeko beharrik izan, eta horrek berriz ere berresten ditu aurrekontu hau egiteko erabili diren printzipioak.

Badakit norbaitek esango duela inbertsio "garrantzitsuak" falta direla. Egia esan, izango dira. Beste administrazio batzuekin batera finantzatuak diren jarduketak aurreikusi dira, baina une honetan ez ditugu aurrekontuan jaso; izan ere, jarduketa horien berri izan arren, oraindik ez dugu konpromiso horiei buruzko agiri ofizialik, eta zuhurtasunagatik eta aurrekontu diziplinagatik, jarduketa horiek ondoren erantsiko zaizkio aurrekontuari.

organizativa y, a ello, me comprometo desde esta Memoria, a que sea una eficaz herramienta de gestión de los recursos públicos, máxime cuando estos son escasos.

Lamentablemente, no se pueden recoger las dotaciones y asignaciones deseables, pero es con lo que tenemos que "lidiar" dese hace muchos años, demasiados, en nuestro municipio.

No es mi intención proceder a relatar que Departamentos se incrementan y cuáles sufren una minoración. Sin embargo si señalaré, que se ha sido escrupuloso con los gastos, incluso en algunas partidas a priori, dotándolas de menores importes, a la espera de obtener la liquidación del Presupuesto de 2014 y conocer el dato del Remanente de Tesorería, el cual una vez obtenido, nos servirá para dotarlas de mayor financiación o incluso paliar o contemplar otras necesidades que se puedan detectar o que aparezcan de forma sobrevenida

En cuanto al Capitulo de Ingresos, nos hemos guiado por el principio de prudencia presupuestaria. Somos conscientes y conocedores de que algunas partidas pueden tener mayor dotación presupuestaria, pero a priori hemos priorizado la prudencia en su valoración y si, a lo largo del año, obtenemos mayores ingresos, estaremos ante una magnífica noticia y siempre estaremos a tiempo y con alguna necesidad que cubrir. Por lo tanto, principio de prudencia presupuestaria frente al principio del "cuento de la lechera"

Esta prudencia presupuestaria, nos lleva también a no haber tenido la necesidad de solicitar ningún crédito, aspecto éste que vuelve a confirmar los principios que han regido la confección de este Presupuesto.

Sé que alguien echará en falta el no contemplar inversiones, pudiéramos decir "significativas". Lo cierto es que las habrá. Actuaciones que vendrán confinadas por otras Administraciones y que, en este momento no hemos dejado plasmadas en este Presupuesto, porque aún teniendo conocimiento "no oficial" de que así será, en este momento no tenemos el soporte documental cierto que avale tal compromiso y por prudencia y disciplina presupuestaria,



serán incorporadas posteriormente al documento presupuestario.

Bukatzeko, hotsandiz adierazten dut Gobernu honek beste udal taldeei eskua luzatu diela. Beste taldeen esanetara gaude, proposamenak trukatzeko, lehentasunak zehazteko edo horiek negoziatzeko. Dena hobetu daiteke. Baita aurrekontu bat ere.

Para finalizar, manifestar solemnemente que este Gobierno tiene tendida la mano a otros grupos municipales . Nos ponemos a disposición del resto de grupos para intercambiar propuestas, priorizarlas o negociarlas. Todo es susceptible de mejora. Y un Presupuesto, también.

Pasaia, 2015eko abenduaren 10

Alkate andrea

Fdo: Izaskun Gómez Cermeño